# Bisoi europarra gure ugaztunetan mehatxatuena



**LIFE LUTREOLA SPAIN** LIFE13 NAT/ES/001171

**LIFE LUTREOLA SPAIN** **(LIFE13 NAT/ES/001171)**
**Ikuspegi berriak bisoi europarraren kontserbazioari buruz Espainian**

GIDOIA ETA TESTUA: Arabako Foru Aldundia eta TRAGSATEC

MARRAZKIAK: AFCmintxo

IMPRIMATZAILEA: Arabako Foru Aldundia

zilegi da erreproduzitzea, betiere jatorria aipatuz.

1. argitalpena: 2004. urtean, Gaztela eta Leonen, Errioxan, Katalunian eta Estonian 2001a eta 2005a bitartean bisoi europarra kontserbatzeko gauzatu ziren LIFE proiektuen elkarlanari esker.
Araba: LIFE OO NAT/E/007335, Gaztela eta Leon: LIFE 00 NAT/E/007299
Errioxa: LIFE 00 NAT/E/007331, Katalunia: LIFE 00 NAT/E/008604,
Estonia: LIFE 02 NAT/EE/007081

Onuradun koordinatzailea:

Tragsatec
GrupoTragsa

Onuradun elkartuak:

Asociación Visón Europeo
Generalitat Valenciana
Gobierno de La Rioja
Gobierno de Aragon
Sendaviva
Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
Bizkaia foru aldundia diputación foral
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

Europar Batasuneko LIFE finantza tresnaren ekarpenarekin

www.lifelutreolaspain.com

ANIMALIEN ERRESUMAKO BITXI BAT AURKEZTU BEHAR DIZUEGU,



GURE HERRI ETA HIRIETATIK, ERREKA,



IBAI ETA HEZEGUNEETATIK GERTU BIZI DENA...




(1) GAZTELANIA ETA FRANTSESA, (2) EUSKARA, (3) KATALANA, (4) INGELESA, (5) ERRUSIERA, (6) ESTONIERA, (7) ALEMANA, (8) ERRUMANIERA









ZURE PROBINTZIAKO ETA AUTONOMIA ERKIDEGOKO IBAI, ERREKA ETA HEZEGUNEETAN BIZI NAIZ. IBAI ERTZETAKO SASI ETA ZUHAMUXKEN PEAN EGITEN DUT LO.

IBAI ZUHAITZTSUAK DITUT GUSTUKO.

LANDARETZA TRINKO ETA

**UR GARBIKOAK.**

ZER JATEN DUDAN?

BADA, IBAIETAN ETA IBAIERTZETAN EHIZATZEN DITUDAN KARRAMARROAK, IGELAK, ARRATOIAK, SUGEAK, ARRAINAK ETA ZAPABURUAK, ETA ZENBAIT INTSEKTU ETA HEGAZTI.















BAINA, ZORITXARREZ, DESAGERTZEN ARI GARA, ARIN.
GALZORI LARRIAN GAUDE!!!
DUELA 100 URTE, ASKO GINEN, ETA EUROPA OSOAN ZEHAR BIZI GINEN.
HASI ERRUSIATIK ETA ESPAINIARA ARTE.
ORAIN, ORDEA, BAKAR BATZUK BAINO EZ GARA GERATZEN, ELKARRENGANDIK MILAKA KILOMETRORA DAUDEN HIRU POPULAZIOTAN...
2.000 km
ETA HORIEK ERE GEROZ ETA MURRITZAGOAK!
egungo populazioa
zer populazio izan litekeen







# BAINA... ZER DELA-ETA ARI GARA DESAGERTZEN?




BISOI AMERIKARRA (MUSTELA VISON) IPAR AMERIKAKO AHAIDE BAT DA. GU HALAKO BI DA PISUAN ETA LUZERAN, ETA GURE IBAIAK HARTZEN ARI DA.
LEHENGUSU!
GRANJETAN HAZTEKO EKARRI ZITUZTEN EUROPARA LARRU GEHIAGO ETA HOBEA PRODUZITZEN DUTELAKO.
BATZUEK IHES EGIN ZUTEN ETA...
BESTE ASKO ASKATU EGIN ZITUZTEN, INGURUMENA ERRESPETATZEN EZ DUTEN JENDEEK.
ORAIN, BISOI AMERIKARRA, GURE UR BERETAN BIZI DA, KOPURU HANDIAGOAN, ETA, AURRE EGITEN DIGUNEAN,
GARAITU EGITEN GAITU BETI
GAINERA, GUK JATEN DUGUN JANARI BERA JATEN DUTE... BAINA GEHIAGO ETA HANDIAGOAK IZAKI, IBAIAK ANIMALIARIK GABE ETA BEHAR ADINA JANARI GABE ARI DIRA UZTEN...
¿ ?
BESTALDE, BISOI EUROPAR EMEAK GEROZ ETA GUTXIAGO DIRA. ETA KUME GUTXIAGO HAZTEN DITUGU.


BESTALDE, IBAIAK ETA IBAIERTZAK HONDATZEN ARI DIRENEZ, GURE BABESLEKU ETA BIZITOKIAK UTZI BEHAR IZATEN DITUGU.
IBAIETAKO KUTSADURAK ZIKINDU EGITEN DU URA ETA GURE JANARIA.
ETA, LURRALDE BERRIEN BILA ABIATZEN GARENEAN...
HARRAPATUAK IZATEKO ARRISKUA IZATEN DUGU !!!


ZERTAN ARI DIRA BISOI EUROPARRA SALBATZEKO?
EGOERA HORRENGATIK ARDURATUTA, TRAGSATEC, ARABAKO, GIPUZKOAKO ETA BIZKAIAKO FORU ALDUNDIAK,
GASTEIZKO UDALA, ARAGOI ETA ERRIOXAKO GOBERNUAK, VALENTZIAKO GENERALITATEA,
SENDA VIVA NATURAREN PARKEAK ETA BISOI EUROPARRA IZENEKO ELKARTEA
ADOS JARRI GARA ESPEZIE HAU SALBATZEKO,
GURE FAUNAKO BITXI BAT DA-ETA!!
LIFE PROIEKTUA ARI GARA GAUZATZEN
(LIFE LUTREOLA SPAIN),
BISOI EUROPARRA KONTSERBATZEKO.
BISOI AMERIKARRA IBAIETATIK ATERATZEN DUGU PLATAFORMA FLOTATZAILEAK BEZALAKO METODOAK ERABILIZ.
IBAIERTZAK BERE ONERATZEN DITUGU ZUHAITZAK ETA ZUHAMUXKAK LANDATUZ...
...HAIEN BABESLEKUAK BABESTEKO.
ITXIAN HAZTEN DITUGU BISOI EUROPARRAK...
HAZKUNTZA ZENTROA
...ESPEZIEAREN ALE BIZIAK IZAN DAITEZEN, MENTURAZ EGUNEN BATEAN NATURATIK DESAGERTZEN BADIRA.
BISOI EUROPARRAK ASKATZEN DITUGU HAZTOKIETATIK, ALE GEHIAGO IZAN DAITEZEN ETA
LEHEN EZ ZIREN LEKUETAN ERE IZAN DAITEZEN.
NOLA BANATZEN DIREN ETA ZER OHITURA DUTEN AZTERTZEN DUGU...
PIT PIT PIT
...ZAINDU ETA NOLA BABESTU JAKITEKO.
ESPEZIEARI BURUZKO INFORMAZIOA ZABALTZEN DUGU...
MUSTELA LUTREOLA
DENOK ELKARREKIN LAN EGITEKO HURA BABESTEARREN.

EUROPA OSOAN ELKARREKIN GABILTZA LANEAN, DESAGER EZ DADIN.



ZUK ERE ZAIN DITZAKETU GURE IBAIAK,

URA ETA IBAIERTZAK ZIKINDU GABE, ETA,

BISOIREN BAT IKUSIZ GERO EDO IBAIETAN

KALTEAK HAUTEMANEZ GERO, NATURA ZAINTZEN

DUTEN ADMINISTRAZIOEI JAKINARAZIZ.




DENON ARTEAN, LORTU DEZAKEGU
AURRERANTZEAN ERE BISOI EUROPARRA
GURE IBAIETAN BIZITZEA.


Tragsatec
GrupoTragsa
Life
LIFE
LUTREOLA
SPAIN
NATURA 2000
SENDAWYA
Asociación
Visón Europeo
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
Gobierno
de La Rioja
GOBIERNO
DE ARAGON
GENERALITAT
VALENCIANA